

Jardunaldiak Bilbao 2010

Gardentasuna etxebizitza-politiketan: herritarren parte-hartzea eta ebaluazioa



Beren arazo garrantzitsuenen berri galdetzen zaienean, etxebizitza aipatzen dute herritarrek iritzi-azterketa guztietan. Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza, Herrilan eta Garraio Sailak denboratxo bat darama EAeko etxebizitzarekin zerikusia duten gaietan sakontzen laguntzen duten jarduerak antolatzen, EAeko Etxebizitza Behatokiaren bidez. Jarduera horien artean, gai zehatzen inguruko topaketak nabarmentzen dira. Topaketa horietan, adituak gonbidatzen ditugu eta esperientzia onak trukatzeko dira.

Administrazio publikoak modernizazio-prozesu batean murgilduta daude oraintxe, kudeaketa publiko moderno eta eraginkorra lortzeko ezinbestekoa baita modernizatzea. Hori dela eta, etxebizitzari buruzko politika eta programetan gardentasun handiagoa lortzen laguntzen duten tresnak erabili behar ditugu. Ebaluazioak egiteko tresnak eta herritarrek parte hartzekoak izan litezke adibide batzuk. Bi tresna horien bidez arrazionaltasuna eta koherentzia lortu nahi dira erabakiak hartzeko garaian, baliabideak erabiltzean efizientzia eta eraginkortasun handiagoa lortzearekin batera. Horrez gain, herritarrek erakundeetan modu eraginkorrean parte hartzea lortu nahi dugu, halaber.

Krisi ekonomikoko garai hauetan, beren diruak zertan gastatzen diren jakiteko eskubidea aldarrikatzen dute herritarrek, inoiz baino gehiago, gastu horiek dituzten ondorioak eta dakartzaten onura sozialak zein diren jakin nahi duelako gizarteak. Bestalde, teknologia berriek eta sare sozialek aukera ematen dute herritarrek esparru publikoaren kudeaketan parte hartzeko, beren iritzia aditzera emateko eta ekarpenak egiteko. Guztia ere ondo kontuan hartu beharra dago, jarduera-programak eta politikak prestatzen direnean.

EAeko Etxebizitza Behatokiak antolatutako jardunaldiotan gai hau landuko da oraingoan:

“Gardentasuna etxebizitza-politiketan: herritarren parte-hartzea eta ebaluazioa”.

Ziur nago jardunaldi hauek lagungarriak izango zaizkigula gorago aipatu ditugun tresnek gure eguneroko jarduerarako eskaintzen dituzten aukerak hobeto ezagutzeko.

[Ondorioak](#) (pdf, 1,1 MB)